



Hizkuntza  
Eskubideak  
Bermatzeko  
Protokoloa:  
Udal Garapena



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
KONTSEILUA



© Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua  
[www.kontseilua.eus](http://www.kontseilua.eus)  
2019ko urria

<b>I. ATARIKOA</b>	<b>7</b>
1. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa	9
2. Euskal Herriko Garapena	9
3. Udal Garapena	9
4. Lankidetzaren eredu berri baterantz	10
<b>II. PRINTZIBIO OROKORRAK, ANTOLAKETA ETA ERABILGARRITASUNA</b>	<b>11</b>
1. Udal Garapena gidatzen duten printzipio orokorrak	13
2. Udal Garapena: Hizkuntza-politika integrala eta prozesu baten baitan lantzeko gida	13
3. Udal Garapenaren edukien antolaketa	13
4. Udal Garapena erabiltzeko zenbait argibidea	15
4.1. Udal Garapenaren erabilgarritasuna	15
4.2. Parte-hartzea	15
4.3. Abiapuntuko diagnosis, helburuen zehaztapena eta tresnak	15
4.4. Lehenetsuneko neurriak eta irizpideak	16
4.4.1. Eskubideen aitortza arautzea	16
4.4.2. Eragingarritasuna eta eraginkortasuna	22
4.4.3. Herritarren hizkuntza-eskubideak	23
4.4.4. Langileek euskaraz lan egiteko eskubidea	24
4.4.5. Lanpostuen euskalduntzea	25
<b>III. HELBURUAK, MUGARRIAK ETA NEURRIAK</b>	<b>30</b>
1. Udal administrazioa	31
1.1. Udalak herritarren zerbitzu guztiak euskaraz ematen dizkiela bermatuko du	32
1.2. Udalak komunikazio-jarduera euskaraz bermatuko du	33
1.3. Udalak euskaraz lan egitea bermatuko du	34
2. Udal administrazioz kanpoko eremuak	35
2.1. Hezkuntza	35
2.2. Eremu sozioekonomikoa	35
2.3. Hedabideak eta teknologia berriak	35
2.4. Onomastika	35
2.5. Kultura	35
<b>IV. GLOSARIOA</b>	<b>40</b>





|

# ATARIKOA



## 1. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa

Urte eta erdiko prozesuaren ondoren, Europako hogeita hamar hizkuntza komunitatetako ehundik gora eragilek helarazitako proposamenekin Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu genuen Donostiako Kursaal jauregian 2016ko abenduaren 16an.

Europar hizkuntza gutxituen alde lan egiten duten **gizarte eragileek inoiz egin izan duten ariketarik erraldoienaren ondorioa izan zen Protokoloa**. Adostasunetik geure eskubideak bermatzeko neurri-zerrenda prestatu genuen. Finen, egoera gutxituan dauden hizkuntzen beharretatik modu independentean lan egiten duten eragileek egindako ekarpenek osatu zuten aipatu dokumentua. Gainera, Europa mailako nazioarteko sei erakundek bideratu zuten prozesua eta hainbat diziplinatako nazioarteko hogeitaz adituen laguntza izan genuen prozesuan zehar.

Horrela, hizkuntza-eskubideak bermatzeko konbentzio hartu beharreko 185 neurri biltzen dituen dokumentua da Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (HEBP).

Eskubideen definizioari dagokionez, Protokoloak 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala izan zuen abiapuntu, eta bertan jasotako eskubideak ez ezik, Deklarazioaren sailkapena ere baliatu zen neurriak antolatzeko. Horrela, hizkuntza-eskubideak bermatzeko adostu ziren 185 neurriak Printzipio orokorrak izeneko eremuan eta beste sei eremu espezifikotan daude banatuta: Administrazio publikoa eta instituzioak, Hezkuntza, Eremu sozioekonomikoa, Onomastika, Hedabideak eta teknologia berriak, eta Kultura.

Esan dezakegu, beraz, Protokoloak jasotako 185 neurriak betetzeak ondorio bat eragingo lukeela, hain zuzen ere, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak aitortutako eskubideak bermatzen zaizkiola hizkuntza-komunitateari.

## 2. Euskal Herriko Garapena

Protokoloa eskutan, beste urrats bat egitea beharrezkoa zela ikusi zuen Kontseiluak. Izan ere, Protokoloaren handitasuna hizkuntza-komunitate desberdinetako proposamenak biltzeko aukera izan bazen ere, horrek bazekarren bertako neurriak hizkuntza zehatz batean aplikatzeko ariketa egin behar izatea. Horrexegatik,

hain zuzen ere, Kontseiluak nahitaezkoa ikusi zuen Protokoloa euskararen betaurrekoetatik irakurtzen lagunduko zuen tresna sortzea.

Protokoloaren **Euskal Herriko Garapenak neurri bakoitzaren inguruko zehaztapenak jasozituen**. Euskararen beharretatik neurri bakoitza bete ahal izateko ezaugarriak eta irizpideak zehaztu ziren. Are gehiago, neurri bakoitza euskararen ikuspegitik nola ulertu behar den, neurri bakoitza betetzeak zer ekarri beharko lukeen, neurri bakoitzak zein aurreko baldintzak izan behar dituen beteta... hori guztia zehaztu zuen Protokoloaren Euskal Herriko Garapenak.

Gainera, hori guztia egiteko, laurogei eragile baino gehiagoren ekarpenak jasoziren eta eremuko hainbat lan-bilera antolatu ziren. Protokoloaren ardatz izan zen parte-hartzea Garapenaren ardatz bihurtu nahi izan genuen.

Egia da, bai, eragileek egindako ekarpenek, zenbaitetan, neurriak berak zehazten zuenez harago jotzen zutelara. Horrela, hori ere jasotzeko joera izan genuen. Izan ere, horixe izan zen, gure ustez, Garapenaren baliorik handiena, Protokoloan jasotako neurriak jomugan jarrita, horiek erdies-teko hartu beharko liritekeen erabakien ezaugarriak biltzea, aldi oro, geure hizkuntza ardatz.

## 3. Udal Garapena

Orain, Kontseiluak proposamen berri bat jarri nahi du mahai gainean: **Protokoloaren Udal Garapena, hain zuzen ere, udalek Protokoloak jasotzen dituen neurriak aurrera eramateko bide-orria**.

Herritarrengandik hurbilen dagoen instituzioa da udala. Herritarrek hurbilen sentitzen duten erakundea dela esango genuke, eta egunero-kotasunean udalarekin harreman ugari izaten dute, bai eta udalaren zerbitzu eta eskaintza asko jasoz ere.

Horrexegatik, hain zuzen ere, **udalen hizkuntza-politikak estrategikotzat jo izan ditu Kontseiluak** historian zehar, eta hainbat proiektu garatu ditu politika horiek hobetzeari begira: ordenantza eredugarrien prestakuntza, udaletako hizkuntza-politiken neurketa, etab...

Eta arrazoi horrexegatik erabaki zuen Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Udal Garapena jorratzea. Finean, **euskaraz bizi nahi duten herritarrei aukera hori ahalbidetze-**

**ko garatu beharko litzatekeen bide-orria zehaztu nahi izan dugu.**

Horretarako, noski, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloan definitutako 185 neurriak eta Euskal Herriko Garapenean horien inguruan jasotako proposamen eta zehaztapenak izan dira oinarri. Horiek, udal teknikarien eta udal zinegotzien ekarpenekin osatu eta aberastu dira. Horrela, herritarrak eta berari dagozkion hizkuntza-eskubideak erdigunean jarrita, **udaletatik garatu beharreko hizkuntza-politikek hizkuntza-eskubideen bermean urrats esanguratsuak egin ditzaten, arlo guztietarako proposamenak jasotzen dituen dokumentu integrala osatu da.**

#### **4. Lankidetzaren eredu berri baterantz**

Egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzaren normalizazio-prozesua soziala eta politikoa dela adierazi izan du Kontseiluak urteetan zehar. Horrela, hizkuntza-politika eragingarria eta herri-gogo indartsua dira euskararen normalizazio-prozesuak behar dituen osagaiak.

Hori horrela izanik ere, zalantzarik ez dago, eragile instituzionalek, euskalgintzako eragileek eta bestelakoek funtzio berezituak badiutuzte ere, guztion arteko osagarritasunaz harago, lan-molde berriez hitz egiten dela maizago. Are gehiago, lan-molde edo gobernantza-eredu berriei buruzko eztabaida hizkuntza-politikaz harago beste hainbat politiketan ere bada.

Horrexegatik, hain zuzen ere, zinez uste du Kontseiluak Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Udal Garapenak ekarpen handia egin dezakeela lankidetzaren eredu berriak erakitzeko.

Udal Garapenak hizkuntza-politika ikuspegi holistikoarekin eta integratzailearekin garatzeko aukera eskaintzen du, udalaren sail guztietan eragiteko bokazioa du, bai eta udalaren sailez harago ere. Bide-orria da, bai, baina ez da estatikoa. Hartara, udaletako hizkuntza-politikatik hizkuntza-gobernantzara jauzia egiteko oinarriko adostasun-elementua da Udal Garapena.

Hizkuntza-politikari lotutako neurri zehatzen inguruan Euskal Herrian inoiz egon den adostasunik handiena izan duen dokumentua oinarria du herrietan gobernantza-eredu berriak eraikitzen laguntzeko aurkeztzen ari garena.

Gainera, lehen esan bezala, udalak dira herritarrentzat hurbilen dauden instituzioak, eta ikusi ahal izan da errazagoa dela udal-politika berriak eta berritzaileak abian jartzeko foroak sortzea. Are gehiago, udaletako hizkuntza-gobernantza-mota berriak eredu garriak izan daitezke beste maila bateko politiketan eta gobernantzetan eragiteko.

Balia dezagun, beraz, eskuartean dugun aukera norabide berria marrazteko, bai hizkuntza-politiken eremuan, bai eta gobernantza-ereduen eremuan ere.





II

# PRINTZIPIO OROKORRAK, ANTOLAKETA ETA ERABILGARRITASUNA



Lehen atalean aurreratu bezala, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Udal Garapena izeneko dokumentuak udaletan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuko dituen hizkuntza-politika eraginkor bat martxan jartzeko neurri nagusiak zerrendatzen ditu.

Neurri horiek jarraian azalduko ditugun printzipio eta ezaugarrien arabera zerrendatu ditugu, bai eta eskema zehatz batean antolatu ere. Horrela, dokumentu honen xede nagusia ez da udal ekintza-plan bat eskaintzea. Aitzitik, honako dokumentuak hizkuntza-eskubideen bermea ipar duen hizkuntza-politika batean landu beharreko eremuak, hartu beharreko erabaki nagusiak eta kontutan hartu beharreko irizpideak eskaintzen ditu.

## 1. Udal Garapena gidatzen duten printzipio orokorrak

Udalak zerbitzu publikoa eskaintzeko betebeharra duen heinean, ezinbestean, hizkuntza-eskubideak bermatu eta inplementatu behar ditu, besteak beste, berdintasun-printzipioa delako zerbitzu publikoaren oinarritzko printzipioetako bat.

Horrekin batera, hona ekarri nahiko genuke Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak edozein hizkuntza-politika ardaztuko duten printzipioak zenbait neurritan bildu zituela. Horrela, Udal Garapenean ere Protokoloak bildutako neurri horiek inspirazio-iturri edo zeharlerrotzat hartu ditugu.

Horrela, hona hemen udalaren hizkuntza-politika eta, ondorioz, Udal Garapena ardaztu duten ildo nagusiak:

- Hizkuntza-eskubideen aitortza jasotzea
- Hizkuntzarengatiko diskriminazioa saihestea
- Euskarari estatus ofiziala esleitzea
- Araudi egokia onartzea
- Neurri zuzentzaileak hartzea hizkuntza-eskubideak bermatzeko
- Baliabide materialak, diru-baliabideak eta giza baliabideak bermatzea
- Neurri positiboak hartzea, besteak beste, euskararen lehentasuna emateko
- Ezagutzaren unibertsalizaziorako neurriak jartzea
- Hizkuntza-politikaren zehar-lerrotasuna aplikatzea
- Arnasguneen aitortza eta babesa ahalbidetzea

## 2. Udal Garapena: Hizkuntza-politika integrala eta prozesu baten baitan lantzeko gida

Hizkuntza hegemonikoenen ez bezala, hizkuntza gutxitua den euskararen hedapenak eta erabilerak kudeaketa berezitua behar dute desabantaila egoera dela eta. Beste era batera esanda, bere **egoera gutxiagotuak hizkuntza-politika propioa ezartzea eskatzen du.**

**Aldi berean, interes orokorreko politika gisa ulertu behar genuke hizkuntza-politika, epe laburreko eztabaida politikoa haratago doana. Izan ere, oinarritzko eskubideez ari gara hemen, eta horrek zuzenean harreman- eta elkarbizitza-eredu demokratikoari eragiten dio.**

**Horiek esanda, udal administrazioak hainbat eginkizun ditu hizkuntza-politikari dagokionez. Alde batetik, zerbitzuak euskaraz bermatu eta informazioa euskaraz eskaini behar ditu; bestetik, bere ardurapeko egituretan euskaraz lan egin ahal izateko baldintzak ahalbidetu behar ditu; eta azkenik, bere eragin eremuan, euskararen garapena eta erabilpena sustatzeko neurriak hartu behar ditu, hain zuzen ere, udala herritarren ongizatea ahalbidetzen duen egitura administratiboa delako eta beraz, euskal hiztunak euskaraz bizi daitezen eremuak sustatzea udalaren misio ere bihurtzen delako.**

Helburu horiek betetzeko **hizkuntza-politika integrala diseinatu eta aplikatu** beharko du. Horrek **udalaren funtzionamenduari eragingo dio, kanpora begira eredugarria** izatea bultzatuko du eta **erabilera-espazioak sortzera eta sustatzera eramana izango da.**

Haatik, hizkuntza-politika integrala plantan ezartzea prozesu baten baitan egiten den eginkizuna denez, urratsez urrats landu beharko da. Horregatik Udal Garapenak prozesu hori martxan jartzeko gida izan nahi du. Are gehiago, aukera eman nahi du hizkuntza-politika bere osotasunean lantzeko, edota eremu zehatzen arabera politikak berezituak jorratzeko.

Ondoko lerroetan azalduko dugu dokumentuaren egituraketa eta erabiltzeko argibide zenbait aurkeztuko ditugu.

## 3. Udal Garapenaren edukien antolaketa

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa oinarri, udaletako hizkuntza-politikak, sail eta eremu guztietan, hiru helburu nagusiri eran-

tzun behar diola ondorioztatu dugu:

- Zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea
- Komunikazio-jarduera euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea
- Euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzea

Helburu horiek oinarri hartuta, hizkuntza-politikaren eragin-esparruak gehiago zehazteko eta operatibizatzeko, Udal Garapena atal desberdinetan sailkatu dugu. Ulertuta, proposatutako banaketaren mugak oso marra fina edo lausoa ere izan dezakeela zenbait kasutan. Baina, aldi berean, ikuspegi osoa izateko eta hizkuntza-politikaren kudeaketarako lagungarria izango delakoan.

Hori esanda, **Udal Garapenean bi atal nagusi bereizi dira: Batetik, udal administrazioaren eremu gisa izendatu duguna; bestetik, berriz, udal administrazioetik kanpoko eremuak. Bigarren multzo horretan sartu ditugu ondorengo eremuak: hezkuntza, eremu sozioekonomikoa, hedabideak eta ingurune digitala, onomastika eta kultura.**

Kasu batean zein bestean, hasieran aipatutako hiru helburuak abiapuntu izanda, **horietara**

**heltzeko mugarririk definitu ditugu, bai eta horiek egikaritzeko neurri-proposamenak ere.**

Udal administrazioaz kanpoko eremuen kasuan, aipatutako hiru helburuak aintzat hartu diren arren, ez dira berariaz aipatu; izan ere, eremu horien azpi-atalak definitzean jarri dugu arreta.


Horrekin batera, kontuan hartu behar da, udal administrazioaren baitan, udalak eskumen osoa izanik, hizkuntza-politikak garatzeko tresna guztiak (araua, plangintza, sustapena edo laguntzak) erabiltzeko aukera izango duela. Aldiz, kanpoko eremuetan, udalak zenbait eskumen izan ditzakeen arren, kasu askotan, ez du beti eskumen zuzenik izango edo ez da osoki bere ardurapean egongo. Hartara, horietan zeharkako politiken (sustapena edo laguntzak) bidez soilik eragin ahal izango du.

Bereizketa hori aintzat hartzeko, udal administrazioaz kanpoko eremuetan, lehenik eremu horretako udal eskumenei begirako mugarririk eta neurriak definitu dira eta ondotik, eskumen zuzenik izan ez arren, eraginez (zeharkako politiken bidez), erdietsi beharreko mugarririk eta horietara heltzeko neurriak.

Hona hemen orain arteko azalpena, Udal Garapena bera oinarri hartuta:

## UDAL ADMINISTRAZIOKO EREMUA

## UDAL ADMINISTRAZIOETIK KANPOKO EREMUA



#### 4. Udal Garapena erabiltzeko zenbait argibide

Dokumentuaren egitura azalduta, hurrengo urratsa Udal Garapena nola erabili azaltzea izango da.

##### 4.1. Udal Garapenaren erabilgarritasuna

Arestian esan bezala, badago eremu zehatz batean hizkuntza-politika berezituak abiarazteko gidaliburu gisa baliatzea, edota udalean hizkuntza-politika integrala abiaraztea.

Hizkuntza-politika definitzen dugunean ezinbestean tokian tokiko errealitateari erreparatzen diogu. Horregatik Udal Garapena **errealitate desberdinei erantzuteko moduko tresna da**. Udal bakoitzak erreparatuko dio bere egoerari zein errealitateari eta hori izango da nahitaezko abiapuntua hizkuntza-politika definitzeko. Gainera, lehen esan bezala, Udal Garapenak aukera ematen digu hizkuntza-politikaren **lanketa integrala egiteko** edo **eremu zehatz baten inguruko politikak definitzeko**.

Jakin badakigu, hizkuntza-politika eraginkorra martxan ezartzea ez dela egun batetik bestera egiten den bidea, alegia, prozesu bat da. Are gehiago egoeraren arabera landu beharreko prozesua da eta errealitate bakoitzaren arabera bidea egiteko aukera eman behar du.

##### 4.2. Parte-hartzea

Edozein delarik ere kasua, hizkuntza-politikaren eraginkortasuna bermatzeko, garrantzitsua da interesdunen parte hartze zuzena bermatzea. Horrela, udal ordezkariekin batera lanketa horretan **hasiera beretik herriko euskalgintzako eragileetako ordezkariak parte hartu behar** **ko lukete**, diagnostikoan, hizkuntza-politikaren definizioan eta beronen inplementazio zein ebaluazioan partaide izanez. Modu horretan, udaletik egin daitekeen lanketak eta euskalgintzatik egin daitekeen ahalik eta sinkronia eta koordinazio estuena izan dezaten bermatuz. Horrekin batera, **hizkuntza-politikak eragina izatea bilatzen duen beste esparruetako eragileen** (merkatarik elkarre, kirol elkarre...) ordezkariekin ere hartu-eman zuzena lantzea beharrezkotzat jotzen da.

Jarraian, Protokoloaren Udal Garapenetik abiatuta, hizkuntza-politika definitzeko prozesurako oinarriko argibideak emango diren arren, le-

kuan leku zehaztu beharko da koordinazioa eta hartu-eman horiek zer-nolakoak izango diren.

##### 4.3 Abiapuntuko diagnosia, helburuen zehaztapena eta tresnak

Udala zein egoeratan dagoen, eta zein oinarritatik abiatzen den zehaztea da egin beharreko **lehen ariketa**. Diagnosi horretan **Udal Garapenak jasotzen dituen helburuak eta mugariak udalean eta udal politiketan zein neurritaraino txertatuta dauden jaso beharko da**.

Egoeraren azterketa edo diagnostikoa osatu ostean, eta hutsuneak zein beharrak identifikatutakoan, udalak helburuak zehaztuko ditu, beti ere Udal Garapenean agertzen diren helburu, mugari eta neurrien arabera. Horrekin batera zehaztutako helburuei epe zehatzak esleituko zaizkie.

Behin hizkuntza-politikaren diagnosia eginda eta helburuak definitu ditugunean hiru tresna ditugu eskura politika hori aurrera eramateko: **arauak, plangintzak eta baliabideak**.

##### Arauak

Hiztunek hizkuntza-eskubideak egikaritzeko berme guztiak izan ditzaten, ezinbestekoa izango da araututako koadro bat ezartzea. Udalaren kasuan, **ordenantza bidez arautuko** da hizkuntza-politika. Eskubideak eta betebeharrak kontuan hartuz, erabakiak arau bihurtu, eta horiek gauzatzeko estrategia jasoko du ordenantzak.

Egia da, bai, egungo amarauna instituzionalean hizkuntza-politikarekin lotutako eskumenak, ezagutzari, erabilerari edota sustapenari lotutakoak, administrazioen artean banatuta daudela. Eta egia ere bada, Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadiko Toki Erkunde Buruzko apirilaren 7ko 2/2016 legeak eskumen berriak esleitu zizkiela udalei hizkuntza-politikaren esparruan. Halere, Nafarroan, ez da oraindik halakorik garatu.

Dena dela, erkidego bakoitzak zehazten dituen eskumenak kontuan hartuta, garrantzitsua da udalek euskararen inguruko ordenantzak onartzea, lehen esan bezala, **araututako koadro bat** lagungarria izango delako hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak abiarazteko.

## Plangintzak

**Udal batek zerbitzua euskaraz era integral eta sistematizatuan eman ahal izatea helburu izango duen hizkuntza-politika batek ezinbestean plangintza bat osatu behar du.** Egoera batetik beste egoera batera pasatzeko tresna litzateke, horrenbestez, hizkuntza-politika planifikatua. Hizkuntza-politika planifikatuaren ezaugarrietako bat epeen zehaztapena izango da, bai eta jarritako helburuen betetze-mailaren ebaluazioa egitea ere.

Gainera, udaletan aplikatu beharreko hizkuntza-politika planifikatuak **bi printzipio nagusiri** erantzun beharko lioke. Lehenik eta behin, **zeharkako izaera duen politika izatea**, hizkuntzak gizartearen eremu guztietan eragiten duelako definizioz; eta, bigarrenik, **hizkuntza gutxituari lehentasunezko traktatua** ematea, hain zuzen, gutxien duenari gehiago emateak ahalbidetzen baitu berdintasun egoera erdiestea.

Horrenbestez, udalak printzipio horiei jarraituz, eta ikuspegi estrategikoa galdu gabe, zuzenean edo zeharka, bere **ardurapean dauden egitura eta eremuetan aplikatuko du hizkuntza-politika.**

Hona hemen, Udal Garapena implementatzeko plangintzak ezinbestean jaso beharreko elementuak:

- Departamentu / sail bakoitzaren egoeraren azterketa eta diagnosis.
- Helburu zehatzen definizioa adierazleekin eta epeekin.
- Hizkuntza-politikaren ebaluazioak (tartekoa eta amaierakoa) egiteko epeen eta tresnen zehaztapena
- Tarteko ebaluazioa, bete ez diren helburuei neurri zuzentzaileak esleitu dakion.

## Baliabideak

Modu guztietan baina, **helburua lortzeko**, ezinbestekoa zaigu **beharrezko baliabideak esleitzea**. **Baliabideok iraunkorrak** izan behar dute, hain zuzen ere, **inbertsio bat** egiten ari gareneko ikuspegiarekin pentsatu beharrekoak.

**Baliabide orokorrak** esleitu behar dira, edozein politikarako jartzen ditugunen antze-

koak, baina bai eta **baliabide espezifikoak** ere, egoera bereziari erantzuten lagundu behar lioketenak. Baliabide horiek, orokorrak zein espezifikoak, **ekonomikoak** izango dira, baina horri erantsi beharko zaizkio **baliabide materialak** edota **giza baliabideak**.

Diru-laguntzez, inbertsioez, bekez, esleipenez eta kontratazioez ari gara beraz, edota, itzulpenerako tresnez, azpiegitura egokituz, material egokiaz... eta nola ez, euskara teknikariez, adituez eta gizarte eragileen ekarpenaz... Egoerari erantzungo dioten baliabide askotarikoak, eta epe ertain-luzera ere eragina izango dutenak.

## **4.4. Lehentasunezko neurriak eta irizpideak**

Ohartzen gara, bai, diagnosis egindakoa eta helburuak zehazterako orduan, zaila suerta daitekeela Udal Garapenean jasotzen diren neurri guztiak bere horretan abian jartzea. Are gehiago, hizkuntza-politika diseinatzean ohartuko gara neurri batzuk jartzeak beste neurri batzuk abian jartzea errazten dutela. Horrexegatik, udal jarduerari lotutako neurrietan, lehentasunez bideratu beharreko neurriak, edota neurriak bideratzeko irizpideak zehaztu nahi izan ditugu.

Argi dago, helburuak eta lehentasunak definitzeko garaian, baliabide mugatuak izan ohi ditugunez, ziurrenera ezingo diogula guztia-ri aldi berean erantzun. Horregatik, **indarrak lehentasunez non jarri asmatzen jakitea gako garrantzitsua da**. Jarraian horretarako argibide edo irizpide batzuk emango dira. Ulertuta, udalerriz udalerriz oso egoera desberdinak eta espezifikoak eman litezkeela eta bakoitzak bere egoerara egokitzen jakin beharko duela hemen esaten dena. Aldi berean, hemen ematen diren irizpideak modu isolatuan aurkezten diren arren, argi dago elkar osatzen eta gurutzatzen direla. Hortaz, garrantzitsua izango da, beti ere, ikuspegi orokorrari eta orekatuari eustea.

### 4.4.1. Eskubideen aitortza arautzea:

Egia da eskubideak arautu gabe berma daitezkeela (*de facto*, zerbitzua euskaraz eskainiz), baina, arautzeak badu bestelako baliorik. Batetik, **udalak berak herritarrari eskubide hori aitortzean**, ahalduntzeko bidea zabaltzen dio. Izan ere, herritarra jakitun da eskubide hori udalak

babestu behar diola, eta beraz erreklamatu ahal izango du. Gainera, horrek eragin handia du norbanakoaren autopertzepzioan, babestuago ikusten baitu bere burua aitortzak lege bidezko aitortza baldin badu, Horrekin batera, udalak, bere buruari eskubide horren bermea eskaini beharra betekizun gisa jarri behar du. Azkenik, babes juridiko horrek ez du unean-unean dagoen agintariaren esku uzten hizkuntza-eskubideak bermatzeko borondatea, izan ere, betebeharrak ezartzen ditu.

#### 4.4.2. Egingarritasuna eta eraginkortasuna:

**Lehentasunak finkatzeko garaian egingarritasunaren eta eraginkortasunaren ardatzak etengabe ardatz izatea ezinbestekoa iruditzen zaigu.** Are gehiago, hartzen diren erabaki guztietan aintzat hartu beharrekoa litzateke, erabaki horiek hizkuntzaren normalizazioan duten eragina, bai eta erabaki horiek aurrera ateratzeko aukerak (baliabideak, gaitasunak, ahalmenak...) ere.

Hori aintzat hartuta, aztertu beharko litzateke jarduera publikoari dagokionez, **publiko gehien edo eragin handien duten jarduerak.** Edota, publiko zabalari begirakoak izan ez arren, etorkizunerako eraginkortasunari begira daudenak, bai eta **haurrei zein gazteei zuzendutakoak** ere.

Horretaz gain, baliabide ekonomikoak eskatzen ez dituzten jardunek ere lehentasuna hartu behar dute, esaterako, kontratazioetarako edo laguntzetarako hizkuntza-irizpideak ezarriz, zein politika garatu litezkeen aintzat hartuz.

Irizpide bertsuei jarraikiz, logikoa litzateke irudi korporatiboa eta idatzizko komunikazio-euskarriak euskalduntzeko garaian, **euskarri finko edo egonkorrenetatik hasi** eta aldakorrenak diren horietara igarotzea, ondoren.

#### 4.4.3. Herritarraren hizkuntza-eskubideak:

Gogoan izan behar da udalaren eta herritarraren arteko harremanean **udalak duela beti herritarren eskubideak bermatzeko betekizuna.** Alegia, herritarrak erabakitzen du zein hizkuntza ofizial erabili nahi duen, eta udalari hautu horri erantzutea dagokio. Hori abiapuntu izanda, **udalaren lehen betekizuna da herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.** Alegia, udalak zorrotz **aztertu beharko du zein sail edo arlo-**

**tan ez duen euskarazko zerbitzua eskaintzen, eta lehentasuna jarri beharko du herritarrari eman beharreko zerbitzua euskaraz izateko eskubidea bermatzean.**

Horrekin bat, **lanpostuetan hizkuntza-eskakizunak** zehazterakoan, **herritarrekin harreman gehien duten udal-zerbitzuetako lanpostuek,** bai eta **haurren heziketa- edo hezkuntza-prozesuetan zein nagusien zaintzan parte hartzen duten lanpostuek lehentasuna** izatea gomendatzen da.

Azkenik, zerbitzu-eginkizuna duten sailetan (jendaurrekoak zein gizarte mailakoak) zerbitzua euskaraz jaso ahal izateko garrantzitsua da sailean eta sailen artean, prozedura osoa **euskaraz eskaini ahal izateko zirkuituak osatzea.** Horretarako, sail horietan guztietan **gutxieneko euskarazko gaitasunak dituzten langileak egotea bermatu beharko da.**

#### 4.4.4 Langileek euskaraz lan egiteko eskubidea:

Aurrekoarekin lotuta, **langileek euren lan-jarduna euskaraz garatzeko duten eskubidea** ere aintzat hartu behar da. Hortaz, udalak baliabideak jarri eta eskaini beharko dizkio langileari, bere lan-jarduna euskaraz garatu dezan. Horretan, beraz, **lanerako tresneria eta dokumentazioa euskaraz eskaintzeaz gain, lehentasuna ezarri beharko da langile gehienekin harreman handiena duten udal-zerbitzuetako lanpostuak euskalduntzean.**

Horrekin batera, euskaraz lan egin nahi duten langileei, beharrezko gaitasunak eskuratzeko, **formazio jarraikiaren baitan, euskalduntzeko edo euskarazko trebakuntzarako saiok eskaini beharko zaizkie.**

#### 4.4.5. Lanpostuen euskalduntzea:

Dudarik gabe, euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatuko badira, ezinbestekoa da udal lanpostuak euskalduntzea. Hau izan ohi da prozesu hauetan eragin zabal eta sakonena duen alderdia, baina, aldi berean, bai eta konplexuena ere. Izan ere, prozesu hau beste hainbat hari-muturrekin korapilatzen da: langileen eskubideak, gaitasunak, herritarren eskubideak, udal baliabideak...

Gauzak horrela, gai honen inguruan hainbat irizpide edo argibide mahai gaineratzea, beharrezkoa delakoan gaude:

- 1) Lanpostuak behar duen hizkuntza-gaitasunaz gain, hizkuntza erabilerarako irizpideak finkatzea. Alegia, kontua ez da soilik zein gaitasun izan behar duen, baizik eta gaitasun horiek aintzat hartuta, bere lan-harremanetan (lankideekin, bere ardurapekoekin, arduradunekin, herritarrekin...) **zein hizkuntza-erabilera izan beharko duen zehazteko irizpideak argitzea.**
- 2) Komeni da argi izatea **hizkuntza-eskakizunak** ez zaizkiola langileari jartzen, **lanpostuari baizik.** Horrela, lanpostua euskalduntzeko hiru iturri egon litezke:
  - a. Lanpostu horretarako **langile euskalduna kontratatzea**
  - b. Lanpostu horretan dagoen langilea (ez bada euskalduna) **formazioaren bidez euskalduntzea**
  - c. Lanpostu horretan dagoen langilea (ez bada euskalduna) lekuz aldatzea -euskara gaitasuna eskatzen ez duen **beste lanpostu batera**- eta lanpostu horretan langile euskalduna ezartzea.

Kasuan kasu aztertu beharko da, beraz, lanpostua euskalduntzeko zein den biderik egingarriena eta eraginkorrena.
- 3) Horiek aintzat hartuta, Kontseiluak proposatzen duen irizpidea da, euskararen normalizazio-prozesuaren eta euskarazko ikastere-  
duen bilakaera aintzat hartuta, badela garaia, **etorkizuneko lanpostu berri guztiei euskararen derrigorrezko ezagutza ezartzeko.** Are gehiago, irizpide hori ezarriko balitz, ondorengo urteotan administrazio publikoetan datorren belaunaldi aldaketa eta erretiro olatua aintzat hartuta, administrazioen euskalduntzean jauzi kualitatiboa emateko aukera izan dezakegu. Ez hori bakarrik, herritarrei mezu argia emango litzaieke, alegia, euskara beharrezkoa dela administrazio publikoan lan egiteko. Horrek, zalantzarik gabe, euskalduntze-prozesu orokorra bizkortzen lagunduko luke.
- 4) Dena delakoarengatik, udalen batean horretarako baldintzarik ez balego, gutxienez, garrantzitsua litzateke erabaki horri albat arinen **epemuga zehatza finkatzea** -adibidez, 2025etik aurrera izango dela derrigorrezkoa erabakitzea-, egokitzeko tartea eskainiz eta bien bitartean, egiten diren lan-deialdietan, euskararen ezagutzari ahalik eta balio handiena ematea.





III

# HELBURUAK, MUGARRIAK ETA NEURRIAK



# 1. UDAL ADMINISTRAZIOA

## 1.1. UDALAK HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK EUSKARAZ EMATEN DIZKIELA BERMATU BEHAR DU

HEBP: 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, eta 43. neurriak

### 1. Udalak euskaraz eskainiko dituen zerbitzu orori zein administrazio-prozedura orori, balio juridiko osoa aitortuko die:

- Herritar zein pertsona juridiko guztiei zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea aitortuko zaie.
- Herritarrei zen pertsona juridikoei administrazio-prozedura guztiak euskaraz egiteko eskubidea aitortuko zaie.
- Balio juridikoaren aitortza aplikagarriak izango zaizkie udalaren menpeko bestelako erakundeei (partzuergo, erakunde, fundazio...), bai eta udal-zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten enpresei eta erakundeei ere.
- Hizkuntzarengatiko atzerapenak herritarrei inolako beste alboko kalte-ondorio ekarriko baliete, oreka-neurriak eta neurri zuzentzaileak izango dituzte.

### 2. Udalak herritarrekiko ahozko eta idatzizko arreta euskaraz bermatuko du:

#### *Herritarrekiko arreta zuzena*

- Idatzizko euskarriak euskaraz egongo dira: inprimakiak, formularioak, deialdiak, jakinarazpenak, ebazpenak...
- Informatika-aplikazioen edota on-line administrazioen bidez herritarrek ezein zerbitzu euskaraz hartzeko edota gestioa euskaraz egiteko aukera bermatuko da.
- Ahoz ere euskarazko zerbitzua bermatuko da: arreta-guneak, erantzungailua, telefono bidezko arreta, bozgorailua...
- Zerbitzua euskaraz jasotzeko eskaerei eman beharreko erantzunetan atzerapenak ez izateko protokoloak zehaztuko dira.
- Udal langileak zerbitzua euskaraz ematerik ez badu, egoerari irtenbidea emateko protokoloa zehaztuko da, herritarrek ahalik eta denbora-tarte laburrenean zerbitzua euskaraz jasotzeko.

#### *Prozedurak udalarekin*

- Izapideak bideratzeko dokumentuak euskaraz egongo dira.
- Udalak, edozein prozedura, dagozkien epeetan euskaraz egin ahal izatea bermatuko du.
- Interesdun batek eskatuta hasten diren prozeduretan, udalak herritarrek aukeratu-tako izapide-hizkuntza erabiliko du.
- Herritarrari ezin izango zaio inoiz eskatu euskarazko dokumentuen itzulpena.
- Prozeduran herritar batek edo pertsona juridiko batek baino gehiagok parte hartzen dutenean, udalak euskaraz egin nahi duen herritarrari hautua bermatzeko bitartekoak jarriko dizkio (itzulpenak, etab.).
- Zirkuituak eratuko dira departamentu eta sail guztietan herritarrek udalarekin zabaldu duen prozedura euskaraz egingo dela bermatzeko.

### 3. Udalak herritarrei zerbitzuak euskaraz emateko langile euskaldunak izango ditu:

- Herritarrenganako zerbitzu guztietako lanpostuek derrigorrezko hizkuntza-eskakizun iraungia izango dute.
- Lanpostu berri guztiek hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data iraungia izango dute.
- Herritarrekin harreman gehien duten udal-zerbitzuetako lanpostuek, bai eta haurren heziketa- edo hezkuntza-prozesutan parte hartzen duten lanpostuek ere, lehenetasuna izango dute derrigortasun-datak ezartzean zein langileen euskalduntze-plangintzetan.
- Udaleko atal guztietan langile euskaldunak bermatuko dira euskarazko zirkuituak ahalbidetzeko.
- Langileen barne-mugikortasuna bideratuko da zirkuituak osatu ahal izateko.
- Formazio orokorraz gain, lanpostu bakoitzerako formazio espezifikoak bermatuko da.

### 4. Udalak kanpo-kontratazioetan, lankidetzak-hitzarmenetan, esleipenetan, kanpo-harreman instituzionaletan eta diru-laguntzetan hizkuntza-irizpideak jarriko ditu:

- Udalak beste instituzioekin prozedurak euskaraz zabalduko ditu.
- Udalak bere zerbitzuak kanpo enpresei esleitzen dizkienean, enpresa horiek udalaren hizkuntza-irizpide berak beteko dituztela jasoko da lehiaketan zein kontratuan.
- Herritarrekin harreman zuzena duten elkarteak edo enpresak kontratatu ahal izateko edo esleipen baten hartzekodun izateko, zerbitzua euskaraz eskaintzeko maila egokia dutela bermatuko da, horretarako beharrezkoak diren frogak eginaraziz.
- Kontratazioetako eta esleipenetako klausuletan hizkuntza-irizpideak txertatuko dira eta klausulan ezarritakoa betetzen ez denean, jakinarazpenak eta zigor-espedienteak egingo dira; kontratua eteteko aukera ere egongo da.
- Zerbitzua euskaraz eskaintzen dutela egiaztatzen duen ziurtagiria duten kanpo-enpresak eta elkarteak balioztatuko dira.
- Diru-laguntza jaso duten proiektuek edo entitateek eskaini edo eskainiko duten zerbitzu oro, bai ahoz zein idatziz, euskaraz bermatzen dela ziurtatuko da.

### 5. Departamentu / sail bakoitzean plangintza berezituak osatuko dira:

- Departamentu / sail bakoitzaren egoera aztertuko da eta diagnostia egingo da.
- Helburu zehatzak definituko dira, adierazleekin eta epeekin.
- Plangintzaren ebaluazioak (tartekoa eta amaierakoa) egiteko epeak eta tresnak zehaztuko dira.
- Tarteko ebaluazioan bete ez diren helburuei neurri zuzentzaileak jarriko zaizkie.
- Ebaluazioak egiteko jarraipen-batzordea eratuko da eta euskalgintzaren presentzia bermatuko da.
- Baliabideak plangintzaren araberakoak izango dira.
- Udalarentzat lan egiten duten enpresek plangintzako irizpide berdinak bete beharko dituzte.

## 1.2. UDALAK KOMUNIKAZIO JARDUERA EUSKARAZ BERMATUKO DU

HEBP: 40, 41, 42, 43 eta 44. neurriak

### 1. Udalak irudi korporatiboa euskaraz jarriko du:

- Irudi korporatiboa erabiltzen duten euskarri guztiak euskaraz egongo dira.
- Udaleko irudi korporatiboaren elementuak — bereziki, organoen eta erakundeen izenak — euskaraz idatziko dira.
- Udaleko bulegoetako eta beste azpiegitura batzuetako barneko eta kanpoko errotulu adierazleak euskaraz idatziko dira, edozein euskarritan.
- Irizpide gisa, euskara lehenetsiko da eta antzeko idazketa denean, piktogramak baliatuko dira euskara hutsez mantenduz.

### 2. Udalak ekoizten dituen idatzizko komunikazio-euskarriak euskaraz egongo dira:

- Kartelak eta komunikazio-euskarriak euskaraz egongo dira (behin betiko zein behin-behineko elementuak).
- Herritarrei zuzendutako euskarri digitalak, webguneak, aplikazioak eta sare sozialak euskaraz eskainiko dira.
- Udalaren web-orrietan txertatuta dauden eduki guztiei hizkuntza-irizpideak aplikatuko zaizkie, besteak beste, udalarenak berarenak ez diren edukiei.
- Webguneen eta aplikazioen hasierako bertsioa euskarazkoa izango da.
- Udalen web-orrietako URL helbideak euskaraz idatzita egongo dira.
- Udalaren esku dauden argitalpen guztiak euskaraz egongo dira, orokorrak zein berezituak.
- Euskara sortze-hizkuntza izatea lehenetsiko da.
- Hedabideei zabaldu beharreko mezu eta ohar guztiak euskaraz egongo dira.
- Udalek idatzizko, irratiko edo telebistako hedabideen bitartez sustatzen duen publizitate instituzionala euskaraz egongo da.
- Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen denean, euskarak lehentasunezko trataera izango du.

### 3. Udalak jarduera ofiziala eta publikoa euskaraz egingo ditu:

- Udalaren ohiko jarduerari dagozkion guneeetan euskaraz egingo da edota euskaraz egin ahal izatea bermatuko da: Udal Batzarra, Batzordeak...
- Udalak antolatutako ekitaldi ofizialak euskaraz izango dira.
- Udalak antolatutako ekitaldi publikoak euskaraz izango dira.
- Udalaren ekimenez antolatutako jardunaldi eta bilkuretako ahozko eta idatzizko komunikazioa euskaraz bermatuko da.
- Beste inoren ekitaldietan udalaren hitz hartzeak euskaraz izango dira.

#### 4. Udalaren ardurapean, zuzenean edo zeharka, dauden erakunde guztietan, komunikazio-irizpide berdinak aplikatuko dira:

- Udalaren menpeko bestelako erakundeetan eta udalak parte hartzen duenetan (partzuergo, erakunde, fundazio, enpresa publiko...)...irizpide berak aplikatuko dira.
- Udalerako lan egiten duten enpresek zein udalaren zerbitzuak eskaintzen dituztenek udalaren komunikazio-irizpide berdinak izango dituzte.
- Diru-laguntza jaso duten proiektuek, komunikazioan, hizkuntza-irizpideak izango dituzte eta udalaren irizpideekin bat egingo dute.

#### 5. Udalak 1.1.5. atalean zehaztutakoaren arabera osatuko du plangintza, bai eta komunikazioaren atalari dagokionez ere. Bertan agertzen diren irizpideez gain, honako hauek ere zehaztuko ditu:

- Komunikazio-jardunean euskararen tokia zehaztuko da hizkuntza-irizpideak ezarritz.
- Lehentasunak jarriko dira, besteak beste, umeei zein gazteei zuzendutako jardunetan.
- Komunikazio-euskarriari dagokionez, euskara sortze-hizkuntza izatea lehenetsiko da.
- Jabari publikoaren erabilera berezia eta pribatiboa mantentzeko tituluetan klausula egokiak txertatuko dira kontsumitzaileei eta erabiltzaileei ematen zaizkien informazioa eta segurtasun-abisuak euskaraz idatz edo igor daitezen.

### 1.3. UDALAK EUSKARAZ LAN EGITEA BERMATUKO DU

HEBP: 42, 45, 46, 47, 48 eta 49. neurriak

#### 1. Udalak euskara lan-hizkuntza izan dadin bermeak ezarriko ditu:

- Langileei euskaraz lan egiteko eskubidea aitortuko zaie araudian.
- Euskara-unitateak izendatuko dira, sail edo lan-talde batean, langile guztiek, guztienez, B2 maila dutenean.
- Udalak, ofizioz, hasten dituen administrazio-prozeduretako hizkuntza euskara izango da.

#### 2. Udalak baliabideak jartzen ditu lan-jarduna eta langileen arteko komunikazio ofizialak euskaraz egin daitezen

- Administrazioiko sail eta eremuetan euskara-unitateak sortuko dira.
- Langileen barne-mugikortasuna bideratuko da euskara-unitateak sortzeko.
- Langileei igortzen zaizkien barne-oharrak, zirkularrak, nominak, kontratuak eta bestelako dokumentuak euskaraz egongo dira, eta euskaraz sortzea lehenetsiko da.
- Lan egiteko behar diren baliabide teknikoak eskuragarri egongo dira euskaraz: lexicografia berezitua, software informatikoa...

- Talde-lanean euskarazko komunikazioa errazteko baliabideak jarriko dira (aldibereko itzulpena...).
- Erabilera bultzatzeko sentsibilizazio-saioak antolatuko dira.
- Erakundeetan euskarazko jarduera oztopatu ez dezaten, euskaraz gaituta ez dauden arduradun politikoek euskalduntze-ikastaroak jasoko dituzte, toki-erakunde bakoitzak ezartzen dituen baliabideen bitartez, B2 maila eskuratzeko, gutxienez.
- Barne-komunikazioetan euskaraz aritzea errazteko, langileak identifikatzeko erabiltzen diren informazio-euskarrietan (telefonoen zerrenda, langileen direktorioa, eta abar), langileak zein hizkuntzatan gaituta dauden adieraziko da.

### 3. Udalak langileek euskaraz lan egiteko maila egokia dutela bermatuko du eta lanpostuek hizkuntza-eskakizuna izango dute, betearazteko mekanismoekin:

- Sail guztietako lanpostuek hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data izango dute.
- Lanpostu berri guztiek hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data iraungia izango dute.
- Langile guztiek, gutxienez, B2 maila izango dute ahozko ulermenean eta mintzamenean.
- Goi mailako langileek, gutxienez, C1 maila izango dute.
- Azterketetarako dokumentazio guztia euskaraz eskainiko da.
- Sarbide-probak, lehiaketak eta oposizioak euskaraz egingo dira.
- Langileak lan denboran euskalduntzeko prozesuak onartuko dira.
- Formazio orokorraz gain, lanpostu bakoitzerako beharrezkoa den formazio espezifikoak eskainiko da.

### 4. Udalak 1.1.5. atalean zehaztutakoaren arabera osatuko du plangintza, bai eta langileen hizkuntza-gaitasuna zein euskaraz lan egiteko baliabideen atalari dagokionez ere. Bertan agertzen diren irizpideez gain, honako hauek ere zehaztuko ditu:

- Langileen euskalduntze-prozesua epe zehatzetan kokatuko da eta trebakuntza teknikoak eskaintzeko beharrak aztertu eta zehaztuko dira.

## 2. UDAL ADMINISTRAZIOZ KANPOKO EREMUA

### 2.1. HEZKUNTZA

#### 2.1.1. HEZKUNTZA FORMALA: HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

HEBP: 50, 51, 53, 64, 70, 54, 55, 56, 59 eta 60. neurriak

1. Udalak murgiltze-mantentze ereduaren aldeko sustapen-lana egiteko erabakia hartuko du; eta horretarako baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

- Izen-emate kanpainetan euskarazko irakaskuntzaren aldeko sustapen-lana egingo da:
  - Murgiltze-mantentze ereduaren beharraz eta onurez informazioa zabalduko da.
  - Udaletako jendarte-zerbitzuetan, komunikazio-kanpainak eta euskarriak sortuko dira, kultur aniztasuna balioetsiz.
- Udalak martxan jartzen dituen harrera-protokoloetan euskarak toki esanguratsua izango du: euskarari buruzko informazio orokorra, formakuntza aukerak heldu eta haurrentzat, herrian euskaraz aritzeko guneak, euskarak eskaintzen dituen aukera eta onuren berri emango da.
- Informazio osoa eskura egongo da udalaren harrera-guneetan.

#### 2.1.2. HEZKUNTZA FORMALA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK (MUSIKA ETA ARTE-ESKOLAK)

HEBP: 78, 79, 80 eta 81. neurriak

1. Udalaren ardurapean dauden ikasguetan, 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatuko dira, eta horiez gain, honakoak hartuko dira kontuan:

- Udalaren ardurapean dauden eskolaz kanpoko jarduerari buruzko araudian hizkuntza-irizpidea txertatuko da.
- Ikasguek euskara-plana eta hizkuntza-proiektua izan beharko dituzte.
- Ikastaro guztiak euskaraz eskaintze-aldera plangintza diseinatuko da izaera orokorra duten ikastaroak euskaraz egotea lehenetsiz, bai eta ikasleen eskaerak sortutakoak ere.
- Hizkuntza-proiektuen jarraipena egiteko, arauak eta protokoloak zehaztuko dira.
- Ikuskaritza ezarriko da udalaren jabetza diren zentroetan.



- Ikasle-kopurua edozein delarik ere, euskarazko taldeak bermatuko dira halako zentroetan.
- Euskarazko eskaintza promozionatzeko komunikazio-kanpainak egingo dira.

## 2. Udalaren ardurapean ez dauden ikasguetan, euskarazko eskaintza sustatzeko erabakia hartuko du eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

- Jarduerak eskaintzen dituzten elkarte eta enpresek zuzeneko edo zeharkako laguntza jasotzeko hizkuntza-proiektua garatzeko eskatuko zaie, bai eta euskarazko eskaintza areagotzeko ere.
- Enpresek eta elkarteek, udal-laguntzak eskuratzeko hizkuntzaren kudeaketa euren jardueran integratua izan beharko dute: euskara-plana edo eta euskararen ziurtagiriren baten bidez.
- Ikuskaritza ezarriko da zuzenean edo zeharka diru-laguntza jasotzen duten zentroetan.
- 1.1.5 atalean zehaztutakoaren arabera, diru laguntzek hizkuntza-irizpideak izango dituzte.

### 2.1.3. HEZKUNTZA INFORMALA: AISIALDI-ZENTROAK, KIROL-TALDE ETA -FEDERAZIOAK

HEBP: 82, 83 eta 84. neurriak

## 1. Udalaren ardurapean dauden zentroetan, 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatuko dira, eta horiez gain, honakoa hartuko da kontuan:

- Udalaren ardurapean dauden aisialdi- eta kirol-eskaintzari buruzko araudian hizkuntza-irizpidea ezarriko da.
- Zentroek eta taldeek euskara-plana eta hizkuntza-proiektua izan beharko dituzte.
- Hizkuntza-proiektuen jarraipena egiteko, arauak eta protokoloak zehaztuko dira
- Hizkuntza-proiektuen jarraipena egiteko ikuskaritza ezarriko da udalaren jabetza diren zentroetan.
- Parte hartzaile kopurua edozein delarik ere, euskarazko taldeak bermatuko dira halako zentro zein taldeetan.
- Zentro zein talde guztiek eskaintzen dituzten jardueretan euskarazkoak zenbat diren jakiteko diagnostia egingo da edo egiten lagunduko da.
- Euskarazko eskaintza sustatzeko komunikazio-kanpainak egingo dira.

## 2. Udalak bere jabegoa ez diren zentroetan euskarazko eskaintza sustatzeko erabakia hartuko du eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

- Ikasgu horiei zuzeneko edo zeharkako laguntza emateko, hizkuntzaren kudeaketa euren jardunean integratua izateko eskatuko zaie (hizkuntza-proiektua, euskara-plana, Ziurtagiria...)
- 1.1.5 atalean zehaztutakoaren arabera, diru laguntzek hizkuntza-irizpideak izango dituzte.

## 2.2. EREMU SOZIOEKONOMIKOA

### 2.2. EREMU SOZIOEKONOMIKOA

HEBP: 103, 104, 105, 107, 108 eta 111. neurriak

#### 1. Udalak diru-laguntza bidezkoa ez den eragin ahalmeneko neurriak hartuko ditu:

- Udala bezeroa denean, idatziz zein ahoz, euskarazko zerbitzua eta arreta eskatuko du, bai eta euskarazko euskarriak ere.
- Kontratazio-mota guztietan hizkuntza-klausulak jarriko dira.
- Merkataritza-lizitazioak eta -baimenak ematerako garaian, udalak hizkuntza-irizpideak zehaztuko ditu.
- Udalak enpresei araudian jasotakoa bermatzeko exijituko die.

#### 2. Udalak eremu sozioekonomia euskalduntzeko sustapen politika garatzeko erabakia hartu eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu.

#### EUSKARA PLANAK

- Merkatariekin zuzenean edo merkatarien elkarleen bidez sentsibilizazio eta sustapen lana egingo da, eta elkarlanean ekintza-plan bat ezartzeko ahaleginak egingo dira.

#### EUSKARAZKO ZERBITZUA

- Funtsezko zerbitzua (telekomunikazioak, garraioa, osasuna, energia-hornitzaileak, gizarite-prestazioak, finantza-erakundeak, aseguru-etxeak, posta-zerbitzua) eskaintzen duten enpresa pribatuekin sentsibilizazio eta sustapen lan berezia egingo da, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
- Euskarazko zerbitzua eskaintzen duten establezimenduen identifikazioa egiten lagunduko da.
- Tokiko ekoizpenak edo merkatuko produktuak direnean produktuen etiketak euskaratzeko aholkularitza eta itzulpen zerbitzua eskainiko da.
- Osasunari eta segurtasunari buruzko euskarri fisikoa euskaraz jartzeko erraztasunak emango dira, adibidez, euskarriaren aldaketa udalak finantzatuz edo itzulpen zerbitzua eskainiz.
- Errotulazioa eta merkataritza-informazioa, bereziki kanpo-iragarkietako euskarriak, euskaratzeko erraztasunak emango dira.
- Osasunari eta segurtasunari buruzko mezu-bankua osatuko da eta eskuragarri jarriko da.
- Euskaratzeko tresnak eskuragarri egongo dira: gidak, liburuxkak...
- Informazioa euskaraz egoteko dokumentu-bankua eskuragarri egongo da.
- Itzulpen-zerbitzuak eskainiko dira.

#### SENTSIBILIZAZIOA

- Establezimenduetan lehen hitza euskaraz egiteko kanpainak egingo dira.
- Euskaraz kontsumitzearen aldeko kanpainak bultzatuko dira.
- Euskararen erabilera sustatzeko ekimenak abiatuko dira.

## 2.3. HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

### 2.3.1. HEDABIDEAK

HEBP: 140, 144, 145, 146, 148, 149, 150 eta 152. neurriak

1. Udalak bere jabegokoak diren hedabideetan 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatuko ditu, eta, horiez gain, honako hauek hartuko ditu kontuan:

- Udalaren jabego diren hedabideetan euskararen presentzia bermatzeko planifikazioa egingo da eta presentzia ezagutza tasaren (euskaldunak+ia euskaldunak) gainerik (+%10) egongo da, beti ere gutxieneko %50 bermatuta.
- Udalaren jabego diren hedabideetan, euskaraz egiten dutenei hizkuntza nagusian egitera ez zaie behartuko eta, azpitoluak edo itzulpena erabiliko dira.

2. Udalak informazioa euskaraz jasotzeko eskubidearen aldeko sustapen-lana egingo duela erabakiko du eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

- Udalek, zeinek bere eskumenen arabera, euskarazko hedabideen sustapen-plana egingo dute prestigioa emateko eta ikusarazteko.
- Udalarekin kontratua, laguntza edo prestazioa jasotzen duten hedabideei kuota-sistema ezarriko zaie, eskualde horretan euskararen ezagutza tasaren (euskaldunak+ia euskaldunak) gainerik (+%10); epeka berrikuspena egingo da eta betetze-maila ikuskatzeko kontrol-mekanismoak egongo dira.
- Diru-laguntza espezifikoa emango zaie euskarazko hedabideei eta tokiko hedabide euskaldunei.
- Publizitate instituzionala hedabideen euskararen erabilera tasaren arabera jarriko da.
- Euskaldunak diskriminatzen dituztenei ez zaie publizitate instituzionalik eskainiko.

### 2.3.2. INGURUNE DIGITALA

HEBP: 159, 160, 161, 162, 164, 165 eta 166. neurriak

1. Udalak bere jabegokoak diren hedabideetan 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatuko ditu, eta, horiez gain, honako hauek hartuko ditu kontuan:

- Hornitzaileen softwarea euskaraz egongo da (ordenagailuak, inprimagailuak, fotokopiagailuak...).
- Haur eta gazteentzat lehentasunezko produktu digitalak identifikatu, eta euskaraz egoteko ibilbide-orria definituko da.
- Toki-erakundeen web-orrietan txertatuta dauden eduki guztiei aplikatuko zaizkie hizkuntza-irizpideak.

## 2. Udalak euskarazko ingurune digitalaren aldeko sustapen lana egiteko erabakia hartuko du, eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

- Proiektu digitalen diru-laguntza deialdietan eta bestelako kolaborazio ekonomikoetan euskararen erabilera lehenetsuneko puntuazio-irizpide gisa jasoko da.
- Udalerri mailako eragileei ingurune digitala euskalduntzeko laguntzak emango zaizkie.

## 2.4. ONOMASTIKA

### 2.4. ONOMASTIKA

HEBP: 120, 126, 128, 130 eta 131. neurriak

#### 1. Udalak Euskaltzaindiak zehaztutako toponimoa hartuko du erreferentziazat:

- Udalak Euskaltzaindiak erabakitako toponimia ezarriko du idatzizko euskarri guztietan, bide-seinaleak, inprimakiak, webguneak, kartelak, etab...
- Udalak egiten dituen kontratu eta esleipen guztietan toponimo ofizialak erabili beharra jasoko da, eta egin ezean laguntza edo esleipena kenduko da.
- Udalak hitzarmenak sinatuko ditu udalerriko euskarazko toponimia ikertzeko
- Udalak herriko toponimia bildu eta herritarren eskura jarriko du.
- Udalak tokiko enpresei eta bestelako erakundeei herriko toponimoen berri emango die

#### 2. Udalak herriko izendegia euskaraz bermatuko du:

- Udalak kudeatzen dituen garraiobideetan derrigorrez erabiliko da Euskaltzaindiak erabakitako toponimia.
- Udalak garraiorako egiten dituen kontratu eta esleipen guztietan toponimo ofizialak erabili beharra jasoko da, eta egin ezean laguntza edo esleipena kenduko da.

#### 3. Udalak euskarazko antroponimoak errespetatu eta sustatuko ditu:

- Udalak herritarren euskarazko antroponimoak ez ditu aldatuko.
- Udalak sentsibilizazio-kanpainak antolatuko ditu herritarrek antroponimoak euskal grafia edo idazkerara ekartzeko.

## 2.5. KULTURA

### 2.5. KULTURA

HEBP: 168, 169, 170, 171, 172, 173, 175, 176, 177, 178, 179, 180, 181 eta 183. neurriak

#### 1. Udalak 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatuko ditu eremu honetan, eta, horiez gain, honako hauek hartuko ditu kontuan:

- Euskal kultura herritarren artean sustatzeko, udaleko sail ezberdinetan plangintzak eta aurrekontuak onartuko dira kultura zehar-lerroko politika izan dadin.
- Udal kultur programazioan euskal kultura ardatz hartuta, kultura unibertsala landuko da herriko kultur elkarte, eragile eta hezitzaileekin.
- Kultur programazioan, euskararen presentzia, udalerriko euskararen ezagutzatasa baino %10 goragokoa izango da.
- Kuotak jarriko dira udal-azpiegitura publikoetan euskararen lehentasunezko presentzia bermatzeko.
- Edozein laguntza jasotzeko euskaraz programatzea derrigorrezkoa izango duen kuota-sistema jarriko da, eta programazioez gain, zabalkundearen eta aurkezpenetan ere izango du eragina.
- Udalak kudeatzen dituen edota diruz lagundutako zinema-aretoetan euskarazko gutxiengoak finkatuko dira.

#### 2. Udalak euskaraz sortutako kultura eta kultura unibertsala euskaraz sustatzeko erabakia hartuko du, eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

- Euskaraz sortzen duten eragile eta norbanakoak promozionatzeko, mota guztietako laguntzak eskainiko dira, diru-laguntzak, bekak, sariak, trebakuntza-guneak...
- Udalerrri mailako euskarazko kultur eragileekin hitzarmenak garatuko dira epe ertain/luzera.
- Sorkuntzak zein ekimenak gizarteratzeko edo espazio publikoan hedatzeko estrategiak definituko dira herri eragileekin elkarlanean.
- Udal azpiegiturak eskura jarriko dira euskarazko sormena eta herri-kulturako ekimenak bertan gara daitezen.
- Udalak kudeatzen dituen edo diruz lagundutako hedabideetan euskaraz sortutako kulturaren berri emateko saioak edo tarteak egongo dira.
- Udalak antolatzen dituen erakusketa guztietan euskararen presentzia bermatuko da.
- Zuzenean edo zeharka diru-laguntzak jasotzen dituzten entitateek antolatzen dituzten erakusketetan euskararen presentzia bermatu beharko da.
- Udalerrian antolatzen diren erakusketa guztietan euskararen presentzia bermatzeko baliabideak jarriko dira.
- Beste hizkuntza batzuetan sortutako kultur produktuak euskaraz daudelarik, eskuragarri jarriko dira (literatura unibertsala, zinema...)





## IV. GLOSARIOA





<b>Hizkuntza-eskakizuna</b>	Hizkuntza-gaitasunaren maila da, lanpostu jakin batean euskaraz jarduteko ezinbestekoa dena. Egun gaitasun-mailak definitzeko eredu desberdinak egon arren Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa da estandar gisa gehien zabaltzen eta erabiltzen ari dena:
<b>Derrigorrezkoa ez den hizkuntza-eskakizuna</b>	Derrigorrezkoa ez bada, euskararen ezagutzaren merezimendu-ehunekoa finkatzeko balioko du, hain zuzen ere inoizko hautaketa-prozesuan euskararen ezaguera-maila nola balioetsi zehaztuko duena.
<b>Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna</b>	Derrigorrezkoa bada, data zehatz bat ezartzen zaio, eta egun horretatik aurrera, ezinbestekoa da hizkuntza-eskakizuna betetzea kasuan kasuko lanpostuan jarduteko.
<b>Derrigortasun-data</b>	Lanpostu horretan hizkuntza-eskakizuna noiztik aurrera izango den derrigorrezkoa esaten du. Langileak derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen ez badu, lanpostutik kentzeko espedientea has daiteke. Ondorioz, <i>erremozioa</i> edo lanpostu aldaketa ez da diziplina-zigorra, administrazioak daukan ahalmena baizik.
<b>Derrigortasun-data iraungia</b>	Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-data igarotakoan, derrigortasun-data iraungia duela esango dugu. Horrela, administrazioarako langile berriak kontratatzeko egiten diren lan-deialdietan hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun data iraungia jarriz gero, hautagai guztiak egiaztatua izan beharko dute zehaztutako hizkuntza-eskakizuna.
<b>Euskara-plana</b>	Entitate batean, izan administrazio, enpresa edo elkarte euskararen erabilera garatzeko osatzen den dokumentuari deitzen zaio euskara-plana. Dokumentu horretan erabilera garatzeko bete beharreko helburuak, abian jarri beharreko ekintzak, baliabideak eta epeak zehazten dira, bai eta ebaluaziorako irizpideak ere.
<b>Euskara-unitatea</b>	Euskara lantoki bateko sail, departamentu, edo beste tamaina bateko lan-talde baterako lan-harremanetan erabili beharreko ohiko hizkuntza gisa ezartzen denean, lan-talde hori euskara-unitate gisa izendatua izan dela esango dugu. Horretarako, beraz, lan-talde hori osatzen duten langile guztiak euren lan-jarduna edo lan-harremanak euskaraz garatzeko beharrezko hizkuntza gaitasuna izan beharko dute (egiaztatua ala ez) eta idatzizko nahiz ahozko barne zein kanpo lan-harreman guztiak euskaraz gartuko dituzte, betiere, herritarraren hizkuntza-hautua bermatuz.
<b>Zirkuitua</b>	Zirkuitu deitzen zaio, herritar edo langile batek abiatutako prozedura batek, azken erantzuna edo emaitza jaso artean, administrazioko sailen edota lanpostuen artean urratsez urrats egiten duen ibilbide osoari.

<b>Euskarazko zirkuitua</b>	<p>Herritarrari edo langileari zerbitzua euskaraz eman ahal izateko eta beraz, berak abiatutako prozeduraren azken erantzuna euskaraz jaso ahal izateko, euskarazko zirkuitua eratzeak suposatzen du prozedura horietako urrats edo izapide guztiak euskaraz egin ahal izateko gai diren langileen arteko zirkuitua aurreikustea, bai eta hala behar denean prozedurak zirkuitu horretatik bideratuko direla bermatzea ere.</p> <p>Horretarako, proposatzen da, prozedura horietan parte hartuko duten sail guztietan gutxienez langile elebidun bat egotea, zirkuitua osatu ahal izateko.</p>
<b>Hizkuntza-proiektua</b>	<p>Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektuan biltzen dituen hizkuntzei dagozkien helburuak, edukiak eta metodologia biltzen dituen proiektuari esaten diogu. Horren arabera, hizkuntza desberdinetako irakasleek koordinatu ahal izango dute edukiak, metodologia edo hizkuntza jarduerak adosteko. Hizkuntza desberdinetako irakasleen arteko elkarlan horren ondorioz, hizkuntza bakoitzean ikasitakoa beste hizkuntzetara transferitzea ahalbidetuko da.</p>
<b>Kuota-sistema</b>	<p>Kuota-sistema, produkzio kopuru osoaren arabera ezartzen den gutxieneko bati deitzen zaio. Euskararen kasuan hedabideei aplikatzen zaie kuota-sistema normalean. Hau da, hedabide batek sortzen duen eduki guztitik zein den euskaraz sortu beharreko gutxienekoa zehazten da kuota baten bidez. Normalean ehunekotan zehazten da.</p>





EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
**KONTSEILUA**

Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)  
Tel: 943 591200  
**[www.kontseilua.eus](http://www.kontseilua.eus)**

Marcelo Zelaieta etorbidea, 75  
U3 eraikina, 13. bul  
31014 IRUÑEA

Panama kalea, z.g  
Rog. de Alvaro Elk Et A.1.1  
01012 GASTEIZ

Luzarra kalea, 10  
48014 BILBO

Arsenal plaza, 1  
64100 BAIONA

